

436 EK. IRUTXULO
2004-2-13

Δ199

Auzoz auzo

Altza



Antigua

Larrain dantza eta Iparraldeko jauziak

Dagizarrak eta Antiguotarrak dantza taldeak larrain dantza eta iparraldeko jauziak ikasteko aukera emaniko dute. Eskolak aste bateko eta osteguneko jardunaldiak Azoka zaharrean, 20:00etatik 21:00etara, ikastaroa ostialaren 17an hasi da. Ekainean, aileluzatuko da. Zeharri bonifikazio etxean eman behar da. 16:00etatik 20:30era, 12 eta 17 urteko gazteok berak gaitu ordaindu behar dute eta helduek 10 euro.

Auzoko Euskararen Plan Estrategikoa hizpide

Bizarrain Euskara Elkartearen ekimenez, Altzako Euskararen Plan Estrategikoari buruzko jardunaldiak egingo dira datorren astean. Planaren nondik norakoak azaltzeaz gain, alderdi politikoekin mahai-ingurua antolatu dute.

Astelehenean, hilak 16, Plan Estrategikoan orain arte emandako urratsak eta aurrerantzean eman beharrekoak azalduko dituzte Bizarraineko kideek. Gogoan izan Altzako Euskararen Plan Estrategikoa 2001ean martxan jarri zutela. Lehenik eta behin, ikastetxeak, kultura eta aisialdia, eta kirola izan zituzten aztergai; aipatutako arloetako

32 eragilek hartu zituzten euskara sustatzeko konpromisoak. Plan Estrategikoaren bigarren atalean, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak eta lan mundua izan dituzte aztergai; 46 eragilek euskararen diagnostian parte hartu dute eta, orain, hartu beharreko konpromisoak zehazten ari dira. Ondo bidean, martxoan jakinaraziko dute bigarren atal honetan zein taldek hartuko dituzten konpromisoak. Astelehenean bertan, bestalde, Bizarraineko kideak Kontseiluak joan den hilean aurkeztutako "Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa" kanpainaz ariko dira. Kanpaina horrek euskararen normalizazioaren bidean gizarte osoaren parte-hartzea bultzatzea du helburu.

Ostegunean, hilak 19, azke-

nik, EB-IUko, EAJ-EAko, PPko eta Baga Boga plataformako ordezkariak Euskararen Plan Estrategikoari buruzko mahai-inguruan parte hartuko dute. Lerrook idazterakoan, ez zegoen baieztatuta PSE-EEk mahai-inguruan parte hartuko ote zuen. Bi ekitaldiak Casares kultur etxean izango dira, 19.30ean.

Sukaldaritza ikastaroa

Donostia Kulturak sukaldaritza ikastaroa antolatu du. Eskolak martxoaren 1ean, 3an eta 8an izango dira. Gurea elkartearen izena Casares kultur etxean eman behar da. Ailaran 20a baino lehen.

Kaldereroak

Ostiralean, hilak 13, auzoko kaldereroen konpartisa kalera tuko da. Antiguako hungariarrek afari-mendiak egingo dute 20:00tan Benta Berriko kiroldegian, eta 21:30ean ekingo dote ibilbideari. Platero tabernan eta Poliziak itxitako Antiguotarrak elkartearen aurrean geldialdiak egingo dituzte eta kanpamendua Gaskonia plazan jarriko dute. Ohiko kantuez gain, konpartisakideek beraien sortutakoa ere abestuko dute.



Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza